

# 2009

## IX. Juan San Martin beka

I K E R K E T A                      E S P A R R U A :

# A R T E A



irailaren 1etik urriaren 11ra

saria : 9000 €

Eibarko Udala  
[www.eibar.net](http://www.eibar.net)

Izen-ematea eta informazioa:

PEGORA

Herritarren Zerbitzurako Bulegoa

Untzaga plaza z/g

20600 Eibar (Gipuzkoa)

Tel. 943 708 400

I X .   J U A N   S A N   M A R T I N   B E K A




EIBARKO UDALA  
PORTALEA  
Bista Eder, 10  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel. 943 708 435  
[www.eibar.net](http://www.eibar.net)  
[euskera.ei@eibar.net](mailto:euskera.ei@eibar.net)



UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA  
ISASI -MARKESKOA JAUREGIA  
Otaola, 1  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel. 943 821 426  
[www.ueu.org](http://www.ueu.org)  
[markeskoa@ueu.org](mailto:markeskoa@ueu.org)

# IX. Juan San Martin beka 2009



**Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martín eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, honen izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du.**

Ikerketa esparruak Juan San Martinek bere bizitzan zehar landutako honako hauek dira:

Antropologia, linguistika, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea.

**2009ko deialdian**, honako ikerketa esparrua sartuko da: **ARTEA**.

## 1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1.1 Proiektua, azterlana eta memoria **euskaraz** burutuko dira.
- 1.2 Bekaren iraupena gehienez **12 hilabetekoa** izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- 1.3 Beka honen diru zenbatekoa **9.000 eurokoa** izango da.
- 1.4 Ikerketa-lanak **originala eta argitaratu gabea** izan behar du.

## 2. ESKATZAILEAK

- 2.1 Beka **norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute**. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.
- 2.2 Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da **diplomatua, maila horretako tituluduna edo goi mailako tituluduna izatea**. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.
- 2.3 Eskatzaileak bere **euskarako gaitasuna** frogatu beharko du **EGA edo baliokide** den titulu edo diploma bidez. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

## 3. ESKABIDEETARAKO ARAUAK

Interesatuak eskaria egiteko **eskabide-orria** PEGORA, Herriarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1) edo udaleko web orrian ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)) eskuratu behar dute eta epe barruan **PEGORAn aurkeztu**, behar den bezala beteta eta **ondorengo agiri hauekin batera**:

- 3.1 **Espediente akademiko zehaztua eta osatua**. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.
- 3.2 Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak prestatutako eskabide-orriaren arabera, **curriculum vitae** (PEGORAn edo [www.eibar.net](http://www.eibar.net) web orrian eskuragarri), **titulazioa eta merituen egiaztagiriak**. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.
- 3.3 **Gaiaren azalpena** eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen **proiektua**, ahalik eta zehatzena (**15 orrialdekoa gehienez**), ondokoak azalduz:
  - Lanaren ikerketa esparrua.
  - Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
  - Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.
  - Helburuak.
  - Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
  - Lana garatzeko kronograma.
  - Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
  - Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.
- 3.4 Eskatzaileen **nortasun agiriaren fotokopia** bat.

## 4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa **Eibarko udaletxeko Pegoran (Herriarren Zerbitzurako Bulegoa)** aurkeztu behar da. Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea **2009ko irailaren 1etik urriaren 11ra arte** egongo da zabalik, biak barne.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesatuari. Bide batez, hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## 5. ESLEIPEN PROZEDURA

Beka hau Eibarko Alkateak esleitzeko du, azaroaren erdi aldera, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Proposamen hori epaimahaiak epaitutako merezimendu lehiaketa baten emaitza oinarritzat hartuta egingo da. Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- |                 |   |
|-----------------|---|
| Batzordeburua:  | -Alkatea edo berak delegatutako udalkidea.  |
| Batzordekideak: | -Euskara eta Kulturaburua.<br>-Juan San Martín familiak izendatutako ordezkaria.<br>-Aurkeztutako proiektuen esparruko UEUko ordezkari 2. |
| Idazkaria:      | -Euskara Teknikaria.  |

Horiez gain, epaimahaiak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituak laguntza eta aholkularitza eska dezake epaimahaiak.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:

- Eskatzaileen espediente akademikoa eta bere curriculum (0-10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-30 puntu).
- Eibarko Udal Artxiboaren edo/eta Udako Euskal Unibertsitateak Eibarko Markeskoan duen fondoaren erabilpena dakarren gaia izatea edo/eta Eibarrekin harreman zuzena duena izatea (0-10 puntu).

Puntuaketa:

- Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaiakide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Epaimahaiakide guztiek dute hitzegiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.
- Puntu gehien duenari esleitzeko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio. Hala ere, epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

## 6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- 6.1 Bekaren onarpena adieraztea eta sinatzea emakida jakinarazi eta 10 eguneko epean.
- 6.2 Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberrako txosten bat bidaltzea bekaren lehen sei hilabeteak igarotakoan.
- 6.3 Eibarko Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.
- 6.4 Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Eibarko Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen baimenik gabe.
- 6.5 Bekaren amaieran memoria (ikerlaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren hiru ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdezatua eta koadernaturik, baita euskarri informatikoan ere, Microsoft Word 2000 programan edo horrekin bateragarria den formatoan.
- 6.6 Ikerlana entregatzeko azken epea betetzen ez bada, justifikazio edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe, penalizatu ahal izango da. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez. Bekaren %8ko murrizketa egin ahal izango da, hil bakotzeko atzerapenagatik.
- 6.7 Lanaren luzerak 100 eta 300 orrialde artekoa izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoia izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskine-tako orrialdeak ez dira kontutan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko.
- 6.8 Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.
- 6.9 Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Eibarko Udala, UEU eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

## 7. ORDAINKETAK

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administrati-boak burutu ondoren:

- Kopuru osoaren %40a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %40a, beka ematen zaionetik sei hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztu beharko duelarik, 6.2. oinarriaren arabera.
- Gainontzeko %20a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu ondoren.

Lana amaituko ez balitz, bekadunak jasotako diru guztia itzuli beharko lioke udalari. Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura joango dira.

## 8. LANEN JABETZA

Lanen jabea **Eibarko Udala** izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, lehentasunez Udako Euskal Unibertsitatearekin, egoki deritzonetan. Beti ere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu. Sortutako materiala aurkeztu eta urte biko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak edo egileek material hori erabili ahal izango du(te) egokien iruditzen zaio(e)na egiteko. Egileak edo egileek orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du(te) (bekaren eta beka eman duen erakundearen eta laguntzailearen izenak jarritz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

## 9. GORABEHERAK

Eibarko Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak betebehar hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango dituzte. Era berean, beka indarrrik gabe utzi ahal izango dute, onuradunak betebehar hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako baliu(zte).

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.